



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

Junta de Gobierno Local

Akta 2017ko Apirilaren 6a
Acta 6 de Abril de 2017

TOKIKO GOBERNU BATZORDEA

JUNTA DE GOBIERNO LOCAL

TOKIA / LUGAR: SALA COMISIONES DE LA CASA CONSISTORIAL DE DURANGO

EGUNA / FECHA: 6/04/2017

HASIERA / INICIO: 16:00 horas

BERTARATUAK / ASISTENTES:

PRESIDENTEA / PRESIDENTE (EAJ/PNV):

Doña Aitziber Irigoras Alberdi andrea (EAJ/PNV) Alkate andrea / Alcaldesa

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (EAJ-PNV):

1. Alkateordea: Doña Pilar Rios Ramos andrea PSE-EE (PSOE), 1ª Tnte. de Alcalde
2. Alkateordea: Doña Maria José Balier Orobiourrutia (EAJ/PNV), 2ª Tnte. de Alcalde
3. Alkateordea: Don Iker Oveja Sobrón jauna (EAJ/PNV) 3º Tnte. de Alcalde.
5. Alkateordea: Don Humberto Jaio Sagasti jauna (EAJ/PNV) 5º Tnte. de Alcalde
6. Alkateordea: D. Jose Maria Andres Ibañez de Garaio jauna (EAJ/PNV) 6º Tnte. de Alcalde

EZ ETORTZEA JUSTIFIKATU DU/EXCUSA SU ASISTENCIA:

4. Alkateordea: Doña Goiztidi Díaz Basterra andrea (EAJ/PNV) 4ª Tnte. de Alcalde

IDAZKARIA/ SECRETARIO

Don Iván Espinosa Pérez jauna, Idazkari Nagusi Ramos Sorrarain Tolosa jaunaren ordezkari / en sustitución del Secretario General Don Ramón Sorrarain Tolosa.

IZAERA / NATURALEZA: OHIKOA / ORDINARIA

DEIALDIA / CONVOCATORIA: LEHENA / PRIMERA

2017ko apirilaren 6an, arratsaldeko 16:00etan, Aitziber Irigoras Alberdi alkate andrea (EAJ/PNV) buru delarik, Udaletxeko Batzorde Gelan Tokiko Gobernu Batzordea osatzen duten zinegotziak bildu dira.

Presidenteak bilkurari hasiera eman dio eta deialdia osatzen duten gaiak aztertu dira. Gaiak honako hauek dira:

En Durango, a seis de abril de dos mil diecisiete, siendo las dieciséis horas, y bajo la Presidencia de la Sra. Alcaldesa, Doña Aitziber Irigoras Alberdi (EAJ/PNV), se reúnen en la Sala de Comisiones de la Casa Consistorial los Concejales miembros de la Junta de Gobierno Local con objeto celebrar sesión.

Abierta la sesión por la Presidente, se pasa a tratar los temas que componen el Orden del Día de la presente sesión y, que son los siguientes:



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

Junta de Gobierno Local

Akta 2017ko Apirilaren 6a
Acta 6 de Abril de 2017

BAT.- BIDEZKOA, BALITZ, AURREKO AKTEN ZIRIBORROAK IRAKURTZEA ETA ONARTZEA.

Onartu egin da 2017ko martxoaren 16ko bilkuraren akta.

UNO.- LECTURA Y APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LOS BORRADORES DE LAS ACTAS ANTERIORES.

Se aprueba por unanimidad el acta de 16 de marzo de 2017.

BI.- INTERESEKO GAIAK.

* 5. Alkateordeak, Jaio Sagasti jaunak (EAJ/PNV), azaldu du mugikortasun urria duen Aramotzeko auzokide batek galdetu diola ea sor daitekeen diru-atalen bat mugikortasun arazoak dituztenei osasun zentrorako joan-etorriak diruz laguntzeko. Eskualdeko beste herri batzuetan horrelako diru-laguntzak badaudela aipatu dio. Aitziber Irigoras Alberdi alkate andreak (EAJ/PNV) argitu du herri horietako diru-laguntza programetan baserri eremuetan bizi diren herritarrei bideratzen zaizkiela laguntzak, eta ez dutela herrigunean bizi diren herritarrentzako laguntzarik aurreikusten. Hala ere, pertsona horiei gizarte zerbitzuetara joatea proposatuko zaie, bertako teknikariek euren egoerari buruzko balorazioa egin diezaieten.

Azaldu du, baita, Getxoko zinegotzi batek merkataritxikiei bideratutako programa baten informazioa eman diola. Bizkaiko Foru Aldundiak sortutako programa da; merkatariek internet bidez euren produktuak saltzeko *online* merkatua da. Udalak ez luke ezer ordaindu beharko. Webgunea hau da: bizkaiadigitalmarket.com.

Merkatarien elkarteari ekimenaren berri ematea erabaki da.

* 6. Alkateorde Ibañez de Garaio jaunak (EAJ/PNV) jakinarazi du laster "Kirol jaia 2017" ekimena egingo dela. Kirol instalazio batzuetan ate irekien eguna egingo dute, kirola sustatzeko helburuarekin. Gazteria teknikariarekin berba egingo du gai hori aztertzeko.

DOS.- ASUNTOS DE INTERES.

* El 5º Tnte. de Alcalde Sr. Jaio Sagasti (EAJ/PNV) expone que una persona con movilidad reducida residente en el barrio de Aramotz le ha preguntado por la posibilidad de crear una partida de ayudas que subvencione los viajes al centro de salud a aquellas personas con problemas de movilidad, del mismo modo que hacen otros municipios de la comarca. La Alcaldesa, Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV) aclara que los programas de ayudas en esos municipios regulan ayudas a residentes en núcleos rurales y no contemplan subvenciones a residentes en sus cascos urbanos. No obstante, se les propondrá acudir a los servicios sociales para que realicen una valoración de su situación.

También comenta que ha recibido a través de un concejal del municipio de Getxo información sobre un programa creado por la Diputación Foral de Bizkaia que está destinado a los pequeños comercios. Se trata de un mercado online donde pueden comercializar sus productos. No hay coste económico para el Ayuntamiento. Su web es bizkaiadigitalmarket.com.

Se acuerda informar a la asociación de comerciantes.

* El 6º Tnte. de Alcalde Sr. Andrés Ibañez de Garaio (EAJ/PNV) informa que se acerca la "Kirol jaia 2017". Es una jornada de puertas abiertas de algunas instalaciones deportivas. Su objetivo es fomentar el deporte. Hablará con el Técnico de Juventud para estudiarlo.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

Junta de Gobierno Local

Akta 2017ko Apirilaren 6a
Acta 6 de Abril de 2017

Horrez gain, adierazi du Durango Rugby Taldea kirol klubeko presidentek deitu diola, jakinarazteko kluba sortu zeneko 30.urteurrena antolatzen dabiltzala. Ospakizunak gauzatzeko laguntza eskatuko dute.

Amaitzeko, azaldu du herriko ikastetxe batek uztailen Musika Eskolako gelak erabili ahal izatea eskatu duela, ikastetxean obrak egin behar dituztelako eta lekua behar dutelako programatuta zituzten ingeles eskolak emateko. Erakunde autonomoko gerenteari galdetu dio, eta hark oniritzia eman du, eraikina data horietan zabalik egongo delako eta atezaina lanean egongo delako. Ikastetxeak prezio bat ordaintzea proposatu du instalazioak erabiltzearen truke.

* 1. Alkateorde **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)** jakinarazi du Musika Eskolan musika garaikideko kontzertuak egitea eskatu dutela. Ekintza informal bat egingo da eraikinaren izen berriarekin plaka jarriko den egunean.

Bestalde, azaldu du emakume atleta beterano batzuk atletismoko pistan batu ohi direla elkarrekin kirola egiteko. Duela urte batzuk lehiaketetan aritutako atletak dira, eta bere garaian, arrazoi anitzak medio, lehia utzi zuten. Emakume gehiago animatu gura dituzte euren taldearekin bat egitera. Informazioa zabaltzeko, kalean dauden udalaren informazio puntu digitaletan euren deialdiaren berri emateko eskatu dute.

Horrez gain, azaldu du diagnostiko bat burutuko dela pertsona nagusien beharrianak ezagutzeko, eta etxez etxe janaria banatzeko zerbitzua eskaintzeko beharrik dagoen ikusteko. Dena dela, zerbitzu hori, jartzekotan, inoiz ez litzateke 2018a baino lehen martxan jarriko.


Además, comenta que el presidente del club deportivo Durango Rugby Taldea le ha llamado para hacerle saber que están organizando el treinta aniversario de la creación del club y solicitarán una ayuda para el evento.

Para terminar informa que un colegio de la localidad ha pedido la cesión de las aulas de la Escuela de Música en julio porque van a realizar obras en sus instalaciones y necesitan un espacio para impartir las clases de inglés que tienen programadas. Lo ha consultado con el Gerente del Organismo Autónomo y ha recibido su visto bueno porque el edificio en esas fechas estará abierto y el conserje trabajando. El colegio ha propuesto abonar un alquiler por el uso de las instalaciones.

* La 1ª Tnte. de Alcalde **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)** expone que han solicitado que se realicen conciertos de música moderna en la Escuela de Música. Se hará algo informal cuando se ponga la placa con el nuevo nombre del edificio.

Hay un grupo de atletas veteranas, que compitieron en el pasado y que abandonaron la competición por diferentes motivos, que se suelen reunir para hacer deporte en las instalaciones de la pista de atletismo. Quieren animar a otras mujeres a que se unan a ellas. Por eso, han solicitado que esa información se difunda a través de los puntos de información digitales instalados en la vía pública (PICs).

Además, informa que se va a realizar un diagnostico sobre las necesidades de las personas mayores en cuanto a la posibilidad de ofrecerles un servicio de comida a domicilio. Su puesta en práctica en ningún caso se realizaría antes de 2018.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

Junta de Gobierno Local

Akta 2017ko Apirilaren 6a
Acta 6 de Abril de 2017

Amaitzeko, aipatu du maiatzaren 27an auzokideen jaia izango dutela San Fausto auzoan. Herri bazkaria, umeentzako jolasak eta dantzaldia antolatu dituzte. Izen-ematea doakoa izango da.

* 2. Alkateorde **Oceja Sobrón jaunak (EAJ/PNV)** aipatu du San Fausto Berria auzo elkarteko kideei diru-laguntzak eskatzeko epea pasa zaiela.

Gainera, jakinarazi du laster batzarra izango duela aurtengo sanfaustoak antolatzen hasteko, eta txosnak non jarriko diren erabaki beharko dela. Printzipioz, errotazioa egiteko akordioa dagoenez, aurten ez dira Pinondon egongo. Berrito Landako Gunean jarri daitezke. Kurutziaga kalean jartzea baztertu da, bertan dagoelako eskualdeko anbulantzia zerbitzua.

* **Aitziber Irigoras Alberdi alkate andreak (EAJ/PNV)** Gaztedi Planaren azken edizioaren berri eman du. BFAk eskualdeko udalei deialdia egin zien azken programan parte hartzeko. BFAk programaren % 70 finantzatuko du, eta beste zatia udalek ordainduko dute. Programaren helburua beken bidez gazteei lehen lana bilatzen laguntzea da.

Hiru lantalde sortuko dira programan parte hartuko duten eskualdeko udalerrien ordezkariekin, eta Durangok koordinazio lana egingo du; deialdiaren oinarriak, epeak, enplegu motak, laguntzen jasotzaileek bete beharreko baldintzak, etab. Udalen funtzioa gazteen eta enpresen artean bitartekari lana egitea da.

Durangaldeko Amankomunazgoak beste mota bateko diru-laguntzak dauzka, gazteek titulazioa lortzera bideratutakoak. Programa hau, ordea, titulazio hori dagoeneko baduten gazteei zuzenduta dago.

Para finalizar, anuncia que el próximo 27 de mayo se celebrará una fiesta vecinal en el barrio de San Fausto que consistirá en una comida popular, juegos para la infancia y un baile. La inscripción será gratuita.


* El 2º Tnte. de Alcalde **Sr. Oceja Sobrón (EAJ/PNV)** comenta que a la asociación vecinal San Fausto Berria se le ha pasado el plazo para solicitar la subvención.

Además, anuncia que va a tener una reunión para empezar a preparar las próximas fiestas patronales y hay que decidir donde se van a ubicar las txosnas este año. En principio, por el acuerdo de rotación, este año no toca en Pinondo. Se podría volver a hacer en Landako Gunea. Se descarta instalarlas en Kurutziaga porque ahí está el servicio de ambulancias de la comarca.

* La Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)** informa sobre la reedición del plan Gaztedi. La DFB convocó a los ayuntamientos de la comarca que participaron en el programa anterior. La DFB va a financiar el 70% del programa y los municipios el resto. El objetivo es facilitar que la juventud acceda con mayor facilidad a su primer trabajo a través de becas.

Se van a crear tres grupos en los que se integrarán los municipios de la comarca que participan y Durango coordinará todos los grupos (bases de la convocatoria, plazos, tipologías de empleo, requisitos de los destinatarios de las ayudas, etc). La función de los ayuntamientos es intermediar entre la juventud y las empresas.

La Mancomunidad del Duranguesado trabaja en otra línea de ayudas, destinada a que la juventud obtenga una titulación. Este programa, en cambio, va destinado a personas que ya disponen de esa titulación.



Amaitzeko, azaldu du legegintzaldiko plan estrategikoa idazten amaitzen dabilizala. Aste Santu ostean plan hori esku artean izango dugu, ekintza zehatzekin eta ekintza bakoitzaren aurrekontuarekin. Apirilaren 27an, 17:30ean, formazio saio bat egingo da Etkezaretara jauregian, udalbatza osoarentzat.

HIRU.- PARKE, LORATEGI ETA ZUHAITZ GUNEAK ZAINTEKO ETA MANTENTZEKO ZERBITZUA ARAUTZEN DUEN ADMINISTRAZIO-KONTRATUA LUZATZEKO PROPOSAMENA.

Lantegi Batuak Fundazioak idatzia erregistratu zuen 2017ko martxoaren 17an (erregistroko sarrera zenbakia: 2017002096), eta idatzi hartan, eskatu zuen luza zedila parkeak, lorategiak eta zuhaitz-guneak kontserbatzeko eta mantentzeko zerbitzuaren kontratu administratiboa.

Lehenengo kontratua 2014ko apirilaren 16an sinatu zuten Durangoko Udalak eta Lantegi Batuak Fundazioak. Kontratu hark bi urteko iraupena zuen, 2014ko apirilaren 17an kontatzen hasita; gero, kontratua urtero berritzeko aukera egotea adostu zen, gehienez 4 urteraino.

Iaz, 2016ko otsailaren 25ean, Gobernu Batzordeak kontratua urte betez luzatzea erabaki zuen, 2016ko apirilaren 17an kontatzen hasita.

Gauzak horrela, kontratazioaz eta zerbitzuaren ikuskapenaz arduratzen den udaleko sailak kontratua luzatzearen aldeko txostena idatzi du.

Erabaki hori hartzeko eskumena Tokiko Gobernu Batzordearena da, horrela ezartzen baitu 2015eko ekainaren 26ko Alkatezeta Dekretuak.

Para terminar expone que se está terminando de redactar el plan estratégico de la legislatura. Después de Semana Santa se dispondrá de ese plan, con acciones concretas y presupuestadas. El 27 de abril, a las 17:30 se realizará una sesión de formación en el museo Etkezaretara para toda la corporación.

TERCERO.- PROPUESTA DE PRORROGA DEL CONTRATO ADMINISTRATIVO QUE RIGE EL SERVICIO DE CONSERVACIÓN Y MANTENIMIENTO DE PARQUES, ZONAS AJARDINADAS Y ARBOLADO.


Visto el escrito de "Lantegi Batuak Fundazioa" de fecha 17 de Marzo de 2017 (Rº de Entrada nº 2017002096), solicitando prórroga del Contrato administrativo que rige el servicio de Conservación y Mantenimiento de Parques, Zonas Ajardinadas y Arbolado.

Considerando que el contrato inicial fue suscrito entre el Ayuntamiento de Durango y "Lantegi Batuak Fundazioa" el 16 de Abril de 2014 y en el mismo se preveía una duración inicial de 2 años, a contar desde el día 17 de Abril de 2014, con posibilidad de prórroga anual del Contrato hasta un total de 4 años.

Considerando que mediante acuerdo de la Junta de Gobierno de 25 de Febrero de 2016, se aprobó prorrogar dicho Contrato por un año, a contar desde el 17 de Abril de 2016.

Considerando que el Departamento municipal encargado de la promoción del Contrato, así como de la supervisión de la prestación por parte del contratista, ha emitido informe favorable en relación a la posible prórroga del contrato.

Considerando que la adopción de este acuerdo es competencia de la Junta de Gobierno Local, en virtud de lo dispuesto por Decreto de Alcaldía de 26 de Junio de 2015.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

Junta de Gobierno Local

Akta 2017ko Apirilaren 6a
Acta 6 de Abril de 2017

Aipatutako dekretu horrek aitortutako eskumenari esker, eta 3/2011ko Legegitzaldiko Errege Dekretuak aitortutakoa ere aintzat hartuta (3/2011 dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testuategina onartzen duena).

Hori dena kontuan hartuta, Tokiko Gobernu Batzordeak, batzarrean izan diren kide guztien adostasunarekin, erabaki du **LUZATZEA LANTEGI BATUAK FUNDAZIOA**ri parkeak, lorategiak eta zuhaitz-guneak kontserbatzeko eta mantentzeko zerbitzuaren kontratu administratiboa. **URTEBETEKO (1)** luzapena izango da, **2017ko apirilaren 17an** kontatzen hasita.

LAU.- ESKAERAK ETA ITAUNAK.

Ez dira egin.

En virtud de las competencias delegadas en el antedicho Decreto, y que el Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de Noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público reconoce.

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad de los presentes, acuerda **PRORROGAR** a "**LANTEGI BATUAK FUNDAZIOA**" el Contrato Administrativo que rige el Servicio de "Conservación y Mantenimiento de Parques, Zonas Ajardinadas y Arbolado, por **UN (1) AÑO**, contado a partir del **17 de Abril de 2017**."

CUATRO.- RUEGOS Y PREGUNTAS

No se formulan.



Eta gai ordenan landu beharreko gai guztiak landu ostean, 17:15ak direnean, presidenteak batzarra amaitutzat eman du, eta akta jasotzeari ekin zaio; eta nik, Idazkari Nagusi naizen honek, fede ematen dut.

Y HABIENDO finalizado los asuntos comprendidos en el Orden del Día, siendo las 17:15 horas, por la Alcaldesa-Presidenta se da por finalizada la sesión, levantándose la presente Acta; de todo lo cual yo, como Secretario en funciones, doy fe.

Doña Aitziber Irigoras
Alberdi Andrea

Doña Maria José Balier
Orobio-Urrutia Andrea

Doña Pilar Ríos Ramos
Andrea

Don Iker Oceja Sobrón
Jauna

Don Humberto Jaio
Sagasti Jauna

Don Jose Mari Andrés
Ibañez de Garaio Jauna

Don Ivan Espinosa
Perez Jauna